

## **HEZKIDETZARUNTZ PAUSU BAT**

Amara Berriko patioa aztertzen

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Anza Cascon, Naia

ZUZENDARIA: Duque Ingunza, Ainara

**2022**

## LABURPENA

---

Gaur egungo eskolako patioen irudia errepikatu egiten da ikastola askotan, kirol-pistak eta zementuzko lurak dira nagusi. Espazio hauek ez dituzte ikasle guztien beharrei behar bezala erantzuten eta bertan, rol sexualak, botere-harremanak eta generoko kulturen definizioa indartzen duten jarrerak errepikatzen dira. Hau saihesteko helburuarekin, Amara Berriko Morlans ikastetxeak jolastokia eraldatzeko proiektu bat jarri zuen martxan 2021ean. Hortaz, ikerketa lan honen helburua Morlans-eko jolastoki berrian ematen den errealitatea behatzea da, jolastokiaren espazioen banaketa eta bertan ematen diren harremanak aztertuz. Horretarako, galdetegi bat pasa zaie Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 53 neska eta 63 mutilei. Ikerketak argi erakutsi du neska eta mutilek barneratuta dituztela gizarteak ezarritako genero-rolak, jolas-orduan hartzen dituzten rol eta okupatzen dituzten espazioengatik.

**Hitz-gakoak:** jolastokia, genero-rolak, harremanak, jarrerak, hezkidetza.

## RESÚMEN

---

La imagen actual de los patios escolares se repite en muchos coles, predominando las pistas deportivas y los terrenos de cemento. Estos espacios no responden adecuadamente a las necesidades de los alumnos y reproducen actitudes que refuerzan roles sexuales, relaciones de poder y definición de culturas de género. Con el objetivo de evitarlo, el colegio Morlans de Amara Berri puso en marcha en el año 2021 un proyecto de transformación del patio. Por lo tanto, el objetivo de este trabajo de investigación es observar la realidad que se da en el nuevo patio de Morlans, analizando la distribución de los espacios del patio y las relaciones de los alumnos. Para ello se les ha pasado un cuestionario a 53 chicas y 63 chicos de 5º y 6º de primaria. El estudio ha demostrado que las chicas y los chicos han interiorizado los roles de género que la sociedad impone, por los roles que adquieren en el momento del juego y los espacios que ocupan.

**Palabras-clave:** patio, roles de género, relaciones, actitudes, coeducación.

## ABSTRACT

---

The current image of the school backyards is repeated on many sprouts, predominating sports tracks and cement grounds. These spaces do not adequately meet the needs of all students and reproduce attitudes that reinforce sexual roles, power relations and the definition of gender cultures. In order to avoid this, the Morlans School of Amara Berri started in 2021 a project to transform the playground. Therefore, the objective of this research is to observe the reality of the new playground of Morlans, analyzing the distribution of spaces and student relationships. A questionnaire was passed to 53 girls and 63 boys from 5 and 6 grades. The study has shown that girls and boys have internalized the gender-roles imposed by society, given the roles they acquire at the time of play and the games they perform.

**Key words:** playground, gender-roles, relationships, attitudes, co-education.

## AURKIBIDEA

<b>1.</b>	<b>SARRERA</b> .....	4
<b>2.</b>	<b>MARKO TEORIKOA</b> .....	5
2.1.	GENEROA ETA SEXUA.....	5
2.1.1.	GENERO ESTEREOTIPOAK.....	6
2.1.2.	SEXISMOA.....	7
2.2.	JOLASTOKIA.....	8
2.2.1.	JOLASAK.....	10
2.2.2.	JARRERAK.....	11
2.2.3.	ESPAZIOEN BANAKETA.....	11
2.2.4.	GAUR EGUNGO PATIOEN EGITURA.....	14
2.3.	HEZKIDETZA.....	15
2.4.	AMARA BERRIKO PROIEKTUA.....	18
<b>3.</b>	<b>HELBURUAK</b> .....	20
<b>4.</b>	<b>METODOLOGIA</b> .....	21
4.1.	LAGINA.....	21
4.2.	INSTRUMENTUAK.....	21
4.3.	PROZEDURA.....	21
<b>5.</b>	<b>EMAITZAK</b> .....	22
<b>6.</b>	<b>ONDORIOAK</b> .....	30
<b>7.</b>	<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	34
<b>8.</b>	<b>ERANSKINAK</b> .....	37
8.1.	Amara Berriko patio zaharraren planoak.....	37
8.2.	Patio berriaren eremuak.....	37
8.3.	Banbuz osatutako hesia.....	37
8.4.	Joko elementuak.....	38
8.5.	Zurezko anfiteatroa.....	39
8.6.	Galdetegia.....	40
8.7.	Ping pong eta frontoia.....	42

# 1. SARRERA

---

Eskolako patioa heziketarako gune bat gehiago da. Espazio honetan, ikasleek harreman sozialak garatzen ikasten dute (Hik Hasi, 2018). Pinok eta Gimenezek (2015) aipatzen duten moduan, jolastokia ikasleek gehien desiratzen duten espazio bat bilakatzen da, non pentsatzeko, izateko eta jokatzeko modu ezberdinek parte hartzen duten. Espazio honetan, umeeek haien gaitasunak garatzen ditzute, hezten jarraitzen dute, beraien artean elkarreraginean, eta, beraz, haien nortasuna garatzen dute. Hortaz, harremanetarako eta elkarrekin bizitzeko leku ezin hobea da.

Jolas orduak ikasleen garapen integrala ahalbidetzen du. Izan ere, denbora hauetan ez dute soilik mugimenduek eta jarduera fisikoek parte hartzen, ikaslea beste ikasleekin jartzen da harremanetan haien sozializazio prozesuan laguntzen (Pino eta Gimenez, 2015). Hala ere, guraso eta ikasle askok zalantzak jartzen dute patioko espazioak ikasle guztien beharrei erantzuten dien edo ez. Hau da, jolastokiko espazio ezberdinetan ikasle guztiei egiten zaie lekua? (Hik Hasi, 2018).

Hernaniko Udaletxeko Berdintasun Sailak (2005) adierazten duen moduan, ikasleek jolas-tokia modu oso ezberdin batean erabiltzen dute: “Erabiltzen dituzten espazioaren zabalerrari dagokionean, mutilek neskek baino eremu zabalagoak erabiltzen dituzte. Espazioaren kalitateari dagokionean, ikerketa ugari azaldu dute, normala dela neskek espazio marjinal eta identifikazio falta duten espazioak erabiltzea, mutilek espazio zentralagoak erabiltzen dituzten bitartean”.

Are gehiago, Cantók eta Ruiz-ek (2005) azpimarratzen dute, ikerketa ezberdinek erakusten dutela, nahiz eta hezkuntzan aukera berdintasunaren alde egin, hainbat espazio aldaezinak direla aspalditik. Espazio hauek, neska-mutilengan estereotipatutako jokaerak errepikatzen bultzatzen ditu ikasleak. Esate baterako, jolastokiak, espazio hauen diseinu-irizpideak ez dira aldatzen urtetik urtera.

Kontuan hartu behar da, eskola gehienetan haur batzuk ikastolako jantokian geratzen direnez, jolas orduan geratzen diren orduaz gain, eguerdian beste bi ordu igarotzen dutela espazio hauetan. Bestalde, ikastetxe batzuetan Gorputz Hezkuntzako ikasgaien jolastokiko eremuak erabiltzen dituzte, eta badira kasuak arratsaldeko aisialdi orduetan ere espazio berbera erabiltzen dutenak. Hortaz, ikasle asko bi eta lau ordu artean egon daitezke eskolako

patioetan. Beraz, ezinbestekoa da hausnarketa bat edo behaketa bat egitea espazio honi egiten zaion erabileraren inguruan. (Hik Hasi, 2018).

Hau guztia dela eta, ikastetxe askotan kezka nagusi bat izaten ohi da jolastokiaren egitura, eta horri buruz hausnartzen eta eraldaketak gauzatzen hasiak dira. Honen adibide dugu Donostiako Amara Berriko Morlans ikastetxea, 2021ean patioa eraldatzeko proiektu bat jarri baitzuten martxan.

Hortaz, ikerketa honen helburua, Amara Berriko ikastetxearen patio berriaren errealitatea aztertzea izango da. Horretarako, lanaren lehenengo zatian, eskola patioen errealitateari, hezkidetzari eta Amara Berri eskolaren patioaren gaineko proiektuari buruzko bilaketa bibliografiko bat egin da.

Behin oinarrizko ezagutza teoriko bat edukita, ikerketa honen helburuak zehaztuko dira. Ondoren, ikerketa hau gauzatzeko jarraitutako prozesua eta metodologia adieraziko da, non, erabilitako instrumentuak, lagina eta parte hartzaileak zehaztuko diren.

Bestalde, ikerketa hau egin ahal izateko, ikasleei galdetegi bat pasa zaie espaziaoren erabilerari, joko-jolasen aukerei eta ikasleek jolas orduan duten portaerari buruz. Hortaz, erantzunak grafiko batzuen bitartez jasoko dira, eta hauek interpretatuz ondorio batzuk aterako dira lanaren bukaeran.

## 2. MARKO TEORIKOA

---

### 2.1. GENEROA ETA SEXUA

Genero terminoa sexu biologiko dimorfikoaren aurka sortu zen kultura-kategoria gisa, eta gizakiak eme-eta ar-taldeetan bereizteko erabiltzen zen, ugaltze-aparatuarekin lotutako ezaugarri biologikoen arabera (Bullen et al., 2022).

Nuria Varelak (2014) “Femismo para principiantes” liburuan aipatzen du genero kontzeptua ondorengo esaldiak duen ideiatik sortzen dela: “femeninoa” eta “maskulinoa” ez dira gertaera naturalak edo biologikoak, eraikuntza kulturalak baizik. Hortaz, generotzat hartzen da, Simone de Beauvir-ek zioen bezala, «gizateriak giza emearekin egin duena». Hau da, biologikoki emakumeak izateagatik emakumeek izan behar dituzten arau, betebeharrak, portaera, pentsamendu, gaitasun eta izaera guztiak. Generoa kultura-irudikapen bat da, emakumeen eta

gizonen bizitzari buruzko ideiak, aurreiritziak, arauak, betebeharrak, aginduak eta debekuak biltzen dituen. Hau dela eta, ulertzen da gizonak eta emakumeak ez direla berdinak, bakoitzak bizitzan bere funtzioa baitu (Bravo eta Moreno, 2007).

Hortaz, generoa ez da sexuaren sinonimoa. Sexuaz hitz egiten dugunean, biologiaz ari gara, emakumeen eta gizonen gorputzaren arteko ezberdintasun fisikoetaz alegia. Aldiz, generoaz ari garenean, sexuaren arabera gizonari eta emakumeei esleitutako arau eta jokaerez ari gara hitz egiten. Ideia honekin jarraituz, Simone de Beauvoirren ustetan, bat ez da emakume edo gizon gisa jaiotzen, batek emakume edo gizon izaten ikasten du (Collin, 2008).

### 2.1.1. GENERO ESTEREOTIPOAK

Marañon-ek (2018) genero estereotipoak, genero femeninoaren eta maskulinoaren gainetik sozialki erakitzen diren jokabide- eta ideia- eredu gisa definitzen ditu. Hauek zehazten dute gizonak eta emakumeak nola sentitu, nola jokatu, nola jantzi, nola pentsatu eta nola erlazionatu behar diren (Marta Lozano, 2018).

Hobeto esanda, genero rola gizarateak inposatutako arau ezberdinetan oinarritzen eta erreproduzitzen dira, rol femeninoak eta rol maskulinoak sortuz. Modu honetan, gizona zkoendagik eta emakume zkoengandik espero diren funtzioak ezberdinak dira (Maranon, 2018). Emakume- eta gizonengandik espero diren portaerak, genero-ikuskera estereotipatuek zehatzen dituzte. Honen adibidea dugu, neskek panpinekin jolasatea espero dugula eta aldiz, mutil batek panpinekin jolastean “arraro” bezala ikustea. Argi antzeman daiteke sexuaren araberrako portaera-esperantza jakin bat dagolea, eta baita jokabide horren balorazioa sexuaren arabera egokia edo desegokia izaten dela (Bravo eta Moreno, 2007).

Freixasek (2001) kultura patriarkalak emakumeei inposatutako ezaugarrien buruzko hurbilketa bat ezartzen du; hala nola, edertasuna, maitasunerako joera naturala, amatasunari lotutako emakumearen identitatea, eta emakumeak gainontzekoen ongizatea eta zaintzaile gisa. Bestalde, maskulinitateak gizona zkoak prestatzen ditu bizitza sendotasunez, boterez, ezagutzarekin, harrokeriaz eta trebetasunez aurre egiteko eta beti ere haien sentimenduak arbuia tuz (Bravo eta Moreno, 2007).

### 2.1.2. SEXISMOA

Gaur egun eskola mistoetan errealitate edota egoera ugari pentsarazten digute mutilek neskak gutxiesten dituztela, eta erreferente gisa hartzen jarraitzen dena eredu maskulinoa dela. Curriculumak, eskolako espazioak, irakasle-ikasleen harremanak, partaidetza eta abar ez diote genero berdintasunari laguntzen, kontrakoa baizik, desberdintasunaren oinarri dira. Zenbat aldiz ikusi ditugu mutilak jolastokiaren erdigunean baloiarekin jolasean eta neskak aldiz, lasai hitz egiten eskinetan? Zergatik ikusten ditugu beti mutilak futbolean eta ez neskak? Esan dezakegu eskolan haurrak beren gizarte-trebetasunak garatzen hasten direla, beren kidekoekin erlazionatzen direla eta portaera- eta portaera-jarraibideak ikasten hasten direla (Soto Carmona, 2014).

Argi dago, jolastokian sexismoaren kausalitate-aniztasuna agertzen dela. Sara M. L. (1991) "sexismo e identidad de genero" lanean adierazten duen moduan, sexismoa esentzialismo mota bat da, sexu biologikoa oinarri hartuta gizabanakoen ezberdintasunaren baieztapen absolutua baita.

S. Firestonek, modu honetan definitzen du sexismoa: azpiratutako sexua, hau da femeninoa, gutxiagotasun, menpekotasun, esplotazio egoeran mantentzeko patriarkatuaren magalean erabilitako moduen multzoa da. Sexismoak, bizitzaren esparru guztiak eta giza harremanak hartzen ditu bere baitan. Laburbilduz, boterearen desoreka sexuala izango litzake (Uria, 2010).

Halaber, Eva Ma de la Peñak (2007) gure gizartean dauden sexismo-motak sailkatzen ditu: etsaia eta zoila. Alde batetik, sexismo etsaiak, portaera bortitzak eta emakumearenganako portaera nagusia ditu ezaugarri gisa, eta erraz antzeman daiteke. Sexismo zoilak berriz, gizonak emakumeak gehiegi babesten duela erakusten du, eta emakumeen lorpenak ikusezin bihurtzen ditu. Bigarren honen adibidea dugu jolastokietan mutilek patioaren erdigunea eta protagonismo osoa hartzen dutenean, eta neskak jolastokiko eskinetan geratzen direnean (Soto Carmona, 2014).

Honekin lura, Balones fuera liburuan (2007) idazleak aipatzen duenez, hainbat ikerketak erakutsi dute, hain zuzen ere erregulazio pedagogiko txikiena duten esparruetan bereizten direla gehien harreman sexistak, bai ikasleen borondatezko parte-hartzeari dagokionez, bai irakasleen genero-itxaropenei dagokienez.



## 2.2. JOLASTOKIA

Jarretek (2002) jolastokia modu honetan definitzen du; jolastordua eraikinetik kanpo duten aisialdirako denbora-tarte bat da, non ikasle bakoitzak espontaneoki gustuko dituzten ekintzak burutzen dituzten. Bestalde, Pellegrinik eta Smithek (1993) Pino eta Gimenez (2015) lanean jolas ordua ikasleek deskantsatzeko duten denbora bezala definitzen dute, normalean eraikinetik kanpo.

Eskolako gainerako orduekin konparatuta, jolasaldian ikasleek askatasun gehiago dute aukeratzeko zer egin eta norekin. Azken finean, jolastokia sozializatzeko tresna da, izan ere, ikasleak haien sozializatzeko gaitasunak, enpatia eta afektibitatea praktikan jartzen hasten dira (Pino eta Gimenez, 2015). Horretaz gain, kontuan hartu behar dugu baita, batzuetan jolastokia ume batzuek beste umeekiko elkarreragin sozialetan parte hartzeko duten aukera bakarra izan litekela. Izan ere, ikasgela askotan, metodologia dela eta, elkarreragin txikia bultzatzen baitute. Gainera, ume batzuen gurasoek lana dutenean, etxean gelditzen dira arratsalde osoan telebistaren aurrean edo ordenagailu-kojotan. Hortaz, hauek askotan ez dute elkarrekintzarik izaten beste umeekin ikastolaz aparte (Jarret, 2002).

Honekin jarraituz, “Balones fuera” liburuan (2007) Marina Subirats eta Amparo Tomé idazleek aipatzen dute, jolastokia ikaslearen espazio eta denbora bat dela nagusiki, eta irakasleek zaintza-edo kontrol-zeregina baino ez dutela izaten. Humberto Gómezek gehitzen du (1995, Pérez eta Collazosek aipatua, 2007), jolas orduan ikasleek beren gustuaren eta borondatearen araberrako jolas-jarduerak egiten dituztenean, arreta berezia merezi dutela erakundeko irakasleen aldetik.

Picak (d.g.) ikasleek aisialdiaren edo jolastokiaren beharra dutela aldarrikatzeko zazpi arrazoi ematen ditu:

1. Ikasle guztiek dute atsedenaldira baten onura.
2. Jolasaldiak zereginari eskainitako denbora handitzen du.
3. Umeek argi naturala behar dute.
4. Antolatutako gabeko jolas fisikoek estresa txikiagotzen du.
5. Umeek izaaki sozialak izaten ikasi behar dute.
6. Haurtzaroko osasuna arriskuan dago.
7. Jarduera fisikoak burbuina elikatzen laguntzen du.

Jolas-denbora beharrezkoa da ikasleentzat hezkuntza-prozesuaren barruan. Jolasaldiari esker, ikasleek atsedena hartu, oinarrizko beharrak egin, elikatu, lagunekin partekatu, jolastu eta errutina akademikotik irten daitezke. Honela; lagun berriak egiten dira, gelako eguneroko harremanean baino maila sakonagoan; proiektu berriak sortzen dira; ideiak eta joko-nahiak batzutan ez dira berdinak izaten; eta adiskidetasuna hautsi gabe desberdintasunak errespetatzen ikasten da, edo ez; partekatzen ikasten da, edo norberekeria nagusitzen da; lotsa gainditzeko eta zuzen adierazteko joera dago; ikasleek ikasten ikasten dute, taldean lan egiten eta parte hartzen; edo, besteak beste, helduen autoritatea errespetatzen ikasten da (Pino eta Gimenez, 2015).

Azkenik, jolastokiaren garrantzia azpimarratzeko, Jarret eta Waite-Stupiansky-ek (2009) egindako ikerketan atsenaldi honek umeengan dituen onurak aipatzen dituzte, hauek hiru talde ezberdinetan sailkatuz: onura kognitiboak, sozioemozionalak eta fisikoak.

- Kognitiboak:
  - Haurrak lan gehiago egiten dute jolasaldia dutenean, eta TDAH (arreta-defizitaren sindromea/hiperaktibitatea) duten haurrak dira onura gehien jasotzen dutenak.
  - Oroimenari eta arretari buruzko ikerketak erakusten du oroimena hobetu egiten dela ikaskuntza kontzentratu beharrean banandu egiten denean.
  - Garuneko ikerketak jarduera fisikoaren eta garun-konexioen garapenaren arteko erlazioa erakusten du.
- Sozioemozionala:
  - Ikasleek jolasak irakasten dizkiete elkarri, txandaka ibiltzen dira eta gatazkak konpontzen ikasten dute.
  - Haurrek negoziazio-trebetasunak ikasten dituzte.
- Fisikoak:
  - Egunez aktibo dauden haurrak aktiboagoak dira eskolaren ondoren.

Humberto Gómez (1995; Pérez eta Collazosek aipatuta, 2007) ustetan, jolas orduan ikasleek beren gustuaren eta borondatearen arabera jolas-jarduerak egiten dituzte. Jolasa, jolas-orduaren funtsezko ezaugarria da, eta horixe egitea da gehien gustatzen zaiena ikasleei tarte horretan (Perez eta Collazos, 2007).

### 2.2.1. JOLASAK

Psikologo eta pedagogo askok diote jolasa haurtzaroko ekintzarik garrantzitsuena dela. Umeak jolasten duten bitartean, haien bizitzaren sentimenduak islatzen dira. Gainera, ekintzak berak, umearen garapen psiko-motorean, mentalean, afektiboan eta sozialean eragin izugarria dauka (Llorente, 2004).

Jolas libreak aukera ematen die ikasleei haien buruarekin eta ingurunearekin harreman egokiak izateko, gozatzeko, esperimendatzeko, probatzeko, ikertzeko, erronkak gainditzeko, erabakiak hartzeko, etab. Jokatzeko baldintza egokiak izatea ikasleen beharra eta eskubidea da. Kállók eta Balogek diotenez (2013), “funtsezko behar batetik sortzen da haurrek jolasteko beharra”.

Hare gehiago, Soto Carmonak (2014) dionez, jolasak haurren garapen osoan hezkuntza-baliabide adierazgarrietako bat den heinean, oso garrantzitsua da eskolak ikasleak jolas mota ezberdinetan jolas dezaten bultzatzea. Sozializazio-izaera izateaz gain, jolasa ezinbestekoa da balioen hedapenerako; izan ere, horren bidez haurren beren inguruko jarraibide soziokulturalak barneratzen dituzte. Balore asko jolasen bitartez barneratzen dira, eta nesken zein mutilen etorkizunerako zailtasun kezkarriena genero bakoitzaren berezko ereduen transmisioa da. Azken finean, haien egoera sexualaren arabera, izan behar dutena eta izan behar ez dutena barneratzen dute; hau da, genero bakoitzari dagozkion rolak bete behar dituzte.

Izan ere, Navarrok eta Mongek (2009) azpimarratzen dute, sarritan neskek burutzen dituzten jolasak kultura tradizionalaren hainbat rol femenino hartzen dituztela bere baitan: bilketa, helduetan ikusitako ereduen erreprodukzioa, tradizioan emakumeekin lotutako rolak bereganatzea (erosketa egitea).

Bistan da, ikasleek garatzen dituzten jolasek genero-marka argia dutela, hauek balio instituzional eta sozial desberdina dutelako (futbola sokasaltoan ibiltzea baino estatus handiagoa duen jokoa da) eta gizonen eta emakumeen arteko sailkapen hierarkikoa indartzen duten balio eta jarrera desberdinak txertatzen dituzte. Are gehiago, espazioaren antolaketak bera bultzatzen ditu jolas eta jarrera mota batzuk eta baita sailkapen hierarkiko hori indartu ere (Marina Subirats eta Amparo Tomè, 2007).

Espazioaren banaketa desberdina dela oinarri izanik, erraz sumatu dezakegu jokoak banaketa horren arabera baldintzatuta egongo direla. Ikusi daiteken bezala, jolasak dikotomia baztertzailerik gisa eratu dira, eta dikotomia horiek kultura femenino-maskulino dikotomiak xurgatu ditu. Dikotomia hauen arrisku bat, eraikitzen diren neska-mutilen identitateak identitate baztertzailerik eta eskusiboak bihurtzea da. Hau da, mutila izatea ez da mutilen gauzak egitea soilik, nesken gauzak ez egitea ere bada, eta alderantziz. Dikotomia hauek jolasetan adierazi daitezke ondorengo bi jolas ohikoenetan: futbola eta soka saltoa (Tomé, Amparo eta Ruiz, Rafael, 2002).

Futboleko ibiltzeko espazio handi bat behar dute mutilek. Neskek erabiltzen duten espazioa, libre edo erabilgarri gelditzen den espazioa izaten ohi da. Futboleko baloia boterearen elementu sinbolikoa da; horren ebidentzia da baloia noizbait nesken jolasgunean sartuz gero, momentu horretan okupatutako espazio hori mutilen espazioa bihurtzen dela. Soka saltoan ibiltzeko berriz behar duten espazioa txikia izan ohi da.

### 2.2.2. JARRERAK

Jolasterako orduan, neska eta mutilen jarrerei erreparatzen badiegu, ikusi dezakegu orokorrean neskek hartzen duten jarrera mutilak bainoa pasiboagoa dela, eta begiratzeko edo hitz egiteko joera handiagoa dutela mugitzeko baino.

Beraz, erraz uler daiteke espazio handi hauetan sartzeko aukera ez badute, neskek jardueraren mota bat garatu beharko dutela, non espazioaren ezta jolas motaren beharrak ez duten etengabeko gatazka eragingo. Hortaz, eremu seguruetan biltzen dira, paretetatik eta ataripeetatik hurbil, haien ikaskideekin lehian sartzeko beharrik ez duten jokoetara jolasten dute, eta komunikazio-trebetasun linguistikoak gartzeko denbora hartzen dute, helduok “txutxu-mutxu” edo “kutxitxeo” bezala ezagutzen ditugun trebetasunak (Tomé, Amparo eta Ruiz, Rafael, 2002). Laburbilduz, hitzeko eduki handiko eta eduki motor gutxiko jokoetan aritzen dira, eta hauek espazio eremu txiki batean garatzen dira (Navarro eta Monge, 2009)

### 2.2.3. ESPAZIOEN BANAKETA

Ez dago dudarik patioan sexu-desberdintasuna dagoela, baliabideak eta espazioa ez baitira berdin banatzen hauren artean. Cantók eta Ruizek (2005) zehatzago esanda, sexua, maila sozioekonomikoarekin eta adinarekin batera, mugikortasun espaziala baldintzatzen dute.

Espazioa sozializazio-elementu bat gehiago da, eta sexu-esteriotipoek mugatzen eta baldintzatzen dute nesken mugikortasun espaziala.

Balones fuera (2007) liburuan Marina Subirats eta Amparo Tomék argi adierazten dutenez, **mutilak** espazioaren protagonistak dira, espazioa okupatzen dute, espazioa bete nahi dute, espazioa doitu. Horregatik, espaziotik ibiltzen dira korrika, beraien gorputzak ahalik eta espazio handien har dezan saiitzen dira. Mutilentzako espazioa okupatu beharreko dimentsio bat da, konkistatu beharrekoa. Inbasio espazial horren azalpen batzuk generoaren arabera indartutako zenbait kultura-ezaugarriren haur-jolasak birsortzeari buruzkoak dira (Navarro eta Monge, 2009).

Esan beharra dago, askotan gizonezkoak egoten direla futboleko jolasten. “Sarri, gainera, zelai horretan ez da edozein mutilentzako ere lekurik izaten; nagusienak eta indartsuenak gailendu ohi dira” (Hik Hasi, 2018). Azken finean, jolastokiaren espazioaren zatirik handiena futbolerako erabiltzen denean, beste ekintza eta ekintza hauek gauzatzen dituzten umeak bigarren plano batean geratzen dira.

Hala ere, ez da horrela **neskentzat**. Espazioa ez da beraiena, ez da agertoki bat. Puntu batetik bestera igarotzeko erabiltzen dute eta ez dute inoiz erdigunea okupatzen: gehienez zeharkatzen dute, baina ohikoagoa da bazterretan ibiltzea (Marina Subirats eta Amparo Tomè, 2007). Hain zuzen ere, Navarrok eta Mongek (2009) azpimarratzen dute, neskek bigarren mailako papera barneratzen dutela. Are gehiago, autore hauek dioten moduan, neskak jolastokiko espazioetan sartzen saiitzen dira, baina, pixkanaka, interesa izateari uzten diote mutilen partetik arreta handirik jasotzen ez dutelako edo nahita arbuiatzen dituztelako; hortaz, neskek jolastokiko eremu marjinalak okupatzen dituzte. Gauzak horrela, beraiek periferian jolasten dituzten ekintzak edota jolasak bigarren plano batean geratzearekin batera, haiek ikusezin eta mutilen jolasen ikusleak bihurtzen dira. (Hik hasi, 2018).

Ondorioz, Hernaniko Udaletxeko Berdintasun Sailak (2005) adierazten duenez, espazio bakoitzean burutzen diren jarduerak, modu desberdinean baloratzen dira. Alde batetik, mutilek beren jolas-garaia sozialki baloratuak diren ekintzetan ematen dute (adibidez, futboleko). Beste aldetik, neskek, haien jolas-garaia espazio ezberdinetan ematen dute, horren baloratuta ez dauden ekintzetan, denborapasa edo entretenimentutan (goma-saltoan, kromotan jolasean, dantzan, patinatzen, hitz egiten, brile- an jolasean). Hortaz, bistan dago, neskek sozializateko prozesua espazio txikietan garatzen dituztela, eta ezarrita dagoen hierarkia

onartzeko prest daudela. Aldiz, gizonak, “espazio publiko” baterako prestatzen dira, beren gaitasuna eta nagusitasuna frogatzeko (Navarro eta Mongek, 2009).

Bestetik, Amaparo Tomek egindako ikerketa batean (2007) aipatu zuen parte hartu zuten irakasle batzuen ustetan, neskek, haien jolasek behar duten espazioa aurkitzen dutela, berriz ez dute uste burutzen dituzten jarduerak “libre” (erabilgarri) dagoen espaziora egokitu ditzaketenik. Futbolean ez jokatzearen arrazoa, ez dutela nahi dela azpimarratzen dute. Gainera, ez dute espazio handiagoa aldarrikatzen onartu egiten dutelako haien jolasak burutzeko gelditzen zaien espazioa nahikoa dela.

Amaparo Tomek eta Rafael Ruizek (2002) banaketa desberdintzaile hau justifikatzeko bi arrazoi azaltzen dituzte.

Neska-mutilek modu naturalean banatu dute espazioa, eta neskek onartzen dute, espazio txikiagoak izateaz gain, periferikoagoak ere izatea; edo talde batek bestarekiko duen espazioa inposatu da, eta horregatik neskak espazio periferikoetan geratu dira zati txikiago bat okupatuz. Edo bi gauzak batera.

Hala ere, espazioa nola banatu duten azalduko bagenie, seguruenik neska-mutilak ez direla kontziente izango banaketa desberdintzaile honetaz. Errealitatea da gehienek dagoeneko onartzen dituztela botere-harremanak, non espazioa banatzeko moduak inkontzienteki naturalizatzen baitira.

Azkenik, Marina Subirats eta Amparo Tomek diote (2007) ez dela soilik mutilen eta nesken arteko desberdintasunaren arrazoa, baita adinaren ondoriozko diskriminazioen arrazoa ere: helduek dute espazio handiagoa eta hobea. Badinter idazleak dio (1992; Navarro eta Mongek aipatuta, 2009) sexuen araberako segregazio hau geroz eta handiagoa dela umeak helduago direnean. Egindako ikerketeten emaitzetan ikusi daiteke lehen mailako neskak eta mutilak espazio bera erabiliz batera jolasten dutela, oraindik ez da bereizketa hori gertatu. Hala ere, Lehen hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera, mutilak alde batetik taldekatzen dira eta neskak bestetik, talde bakoitzak espazio bat “aukeratuz”.

Hau guztia dela eta, Hernaniko Udaletxeko Berdintasun sailak (2005), ikasle guztien patioko erabilera eta haien arteko harreman berdintsua lortzeko proposamen batzuk bultzatzen ditu:

1. Espazioa zenbait genero-estereotipoekin bat ez datorren moduan erabiltzea.

2. Nesken eta mutilen arteko elkarrekintza-mota aldatzea. Joalstoki garaian ikusi dezakegu neskek eta mutilek oso gutxitan aritzen direla elkarrekin, eta egiten dutenean, modu gatazkatsu batean elkarrengaitan dute.
3. Neskei jolastokiko espazioak erabiltzera eta jarduera fisikoa egitera animatu, haien gustoko jarduerak bultzatuz.
4. Espazioaren erabilera baldintzatzen dituzten hierarkiak puskatzea.
5. Mutilentzako kirol eta lehia-jokoen aurrean aukera ezberdinak ematea
6. Jarduera edo espazioaren erabilera mota ezberdinak bultzatzeko, espazio-mota gehiago eskaintzea.
7. Espazioaren eraldaketa erraztea, behar ezberdinetara moldatu ahal izateko.

#### 2.2.4. GAUR EGUNGO PATIOEN EGITURA

Zoritxarrez, eskoletako patio gehienek egitura nahiko antzekoa da, eta honek ez diete ikasle guztiei gozatzeko aukera bera ematen. Izan ere, jolas minoritario asko bigarren plano batean geratzen dira, espazio falta edo material falta dela eta. Eskoletako eremuak aukera eman behar die hauerrei ikertzeko, esperimentatzeko, probatzeko eta elkartzeko. Hala ere, estandarizatutako jolastoki ereduak errepikatzen da ikastetxe askotan: asfaltoak, hormigoia luze-zabal osoan, futbol zelak erdigune eta saskibaloiko kantzaren bat bazterrean. Espazio publiko batean, zatirik handiena ekintza edota jolas zehatz baterako erabiltzen denean, argi dago ekintza horrek eta ekintza hori gauzatzen duten pertsonen zer-nolako garrantzia hartzen duten (Hik hasi, 2018). Horretaz gain, espazio estandar hauek ez dute jolas aberats, irudimentsu eta askotarikoa eskaintzen eta, hortaz, ez diete behar bezala erantzuten haurren beharrei (Frantzisko Deuna Ikastetxe publikoa, 2022).

Gauzak horrela, orokorrean eskoletako jolastokietan ondorengo egoera hauek gertatzen dira: jolas gutxi, feudalismo territoriala, jarduera fisiko eta ludiko gutxi, nesken eta mutilen arteko interakzio gutxi, ikasle txikiak beti espazio beran, baliabide eta material gutxi (Perez eta Collazos, 2007). Halaber, askotan erlaxazioa edo distentsioa bultzatu beharrean, ikasleen arteko liskarrak, jarrera sexistak, asperdura... lortzen laguntzen du jolastoki orduak (Pino eta Gimenez, 2015).

Alvarezek (2013) adierazten duenez, jolaserako espazioek egokiak eta seguruak izan behar dute, eta ikasleak fisikoki aktiboak izatea ahalbidetu behar dute. Aurrekoari gehituz,

beharrezkoa da, hurrek jolas-orduan gozatzeko egokiak diren espazio fisikoak (azpiegiturakoak) izateaz gain, eskola-umeek gustuko dituzten jarduerak egiteko materialak eta jolasak izatea; esate baterako, motrizitate lodia eta mugimendua garatzeko materialak.

### 2.3. HEZKIDETZA

Marina Subirats eta Amparo Tomé-ren (2007) esanetan, hezkidetzarantz aurretatzea berdintasunaren bidea garatzen jarraitzeko konponbideak aurkitzea da. Bide hau ezinbestekoa da gizaki bakoitza ahal den gehiena izatera iristeko, zoriontsu izateko, sortzeko, bere ingurunean alaitasuna eta aberastasuna sustatzeko.

Hezkidetzaren helburuak estereotipo sexistak zuzentzea, joera sexistak ezabatuko dituen curriculum orekatu bat proposatzea eta norbanakoaren gaitasun guztiak garatzea da, generoa edozein dela ere. Izan ere, hezkuntza sisteman, curriculum ofizialarekin batera curriculum ezku bat dago zeinetan jarrera eta estereotipo sexistak transmititzen dituen modu kontziente edo inkontziente batean. Hezkidetzak generoen hierarkizazioa ezabatzen du, eta ez ditu neskak aldatu nahi balio maskulinoak dituen sistema batera egokitzeko; ez ditu hezi nahi berdinak balira bezala, baizik eta desberdintasunak integratuz aniztasuna errespetatzea eta baloratzea bilatzen da (Cabeza, 2010).

Hik Hasi aldizkariak 2017an atera zuen “Eskola Feminista” alean, Amelia Barquin eta Pilar Aristizabalek (in J.Mari Auzmeendi et al, 2018) generoagatiko deskriminazioa bultzatzen duten hainbat aldagai identifikatzen dituzte:

Aurretik aipatu bezala, Curriculumak neska zein mutilei gizartean “gizon” izatea eta “emakume” izatea zer den adierazten die, eta honek eragin zuzena dauka neska-mutileen nortasunean eta genero-sozializazioan. Irakasleak hausnartzen hasi behar dira irakaskuntzan irakasten dutenaren inguruan. Artikuluaren idazleek adierazten dute gaur egungo curriculumak gizonentzako diseinatutako curriculumaren gainean eraiki dela, eta hortaz, oinarri bezala gizonentzako curriculum horretan jasotzen ziren balioak daudela. Horretaz gain, esaten dute gizarteak maskulinoetat kontsideratzen dituzten balioak modu inplizituan ematen direla eskolan:



- Testu-liburuak:

Eskoletako tesu-liburuak genero-estereotipo marka handia adierazten dute, eta ez dute gaur egungo errealitatea behar den bezala adierazten. Hortaz, testu-liburuetan, irudi edo testuen bidez, diskriminazioa presente ageri da.

- Ebaluazioa:

Ebaluazioak egiteko tresnek; hala nola, probek edota testuek, kritika jaso dute. Izan ere, bertan agertzen diren egoera eta pertsonaiak orokorrean maskulinoak izaten dira, eta hizkuntza eta irudi sexistak ageri dira. Horretaz gain, neskei kalifikazio baxuagoa emateko joera dagoela adierazten dute ikerketek, eta mutilei berriz altuagoak.

- Curriculum ezkutua:

Eskolan erabiltzen diren materialetan zenbat pertsonai femenino eta maskulino dauden, eta hauek ze ezaugarri dituzten hausnartzen hasi behar dira irakasleak. Bestalde, pertsonai hauek zer roletan agertzen diren eta rol horiek egokiak diren edo ez jabetzen hasi beharra dago.

- Harremantzeko moduak:

Irakasleek modu inkontziente batean neskak eta mutilak modu ezberdinetan tratatzen dituzte, neskengan pasibotasuna eta konformisua sustatuz, eta mutilengan independentzia eta banakotasuna. Gainera, aipatzen dute, mutilen portaera txarrarekin toleranteagoak direla irakasleak, naturala bezala hartzen baitute. Era berean, irakasleek espero dute neskek etxerako lanak egitea eta ikaskideei laguntzea. Hortaz, honek argi erakusten du irakasleek ere neskeengandik eta mutileengandik espero duten jarrerak era bat ezberdinak direla.

- Eskolaren egitura:

Eskolan zenbat irakasle mutil eta neska dauden, nortzuk diren garbitzaileak, jantokiko begiraleak edo sukaldean daudenak nor diren begiratzen badugu, ikus dezakegu eskola gehienetan errealitate bera errepikatzen dela. Aristazabalen dio, horrek eragin zuzena duela ikasleengan transmititzen diren eredu edo erreferentengatik. Izan ere, dituzten erreferenteen arabera aukeratzen dute

Hortaz, Eusko Jaurlaritzak (2019) hezkidetza eskolan bultzatzeko hainbat helburu nagusi aipatzen ditu proposatutako hezkidetza planean:

1. Hezkuntzaren arloan lantzen den araudiak berdintasuneko eta hezkidetzako mandatuak beteko dituela bermatzen jarraitzea.
2. Emakumeen ezagutza eta ekarpen historiko eta soizala diziplina guztietan txertatzea.
3. Bi sexuen irudi plurala bermatzen duen irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egitea, genero-rolak eta -estereotipoak alde batera utzita.
4. Orientazio akademiko-profesional ez-sexista bermatzea.
5. Ezkutuko nahiz ageriko curriculumean berdintasuna sartzea.
6. Aniztasunaren molde guztiak txertatzea.
7. Baliabideen eta espazioen erabilera bidezkoa sustatzea.
8. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta tratu ona sustatzea.

Proposatutako helburu nagusi hauek betetzeko, ezinbestekoak dira ondorengo ezaugarri hauek kontuan izatea. Hauek dira Eusko Jaurlaritzak (2019) izendatzen dituenak:

1. **Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean:** genero-arrazoia direla eta, desparekotasunak daudela ulertzeko genero-ikuspegia modu kritikoak lantzea.
2. **Hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez-sexista:** Erabiltzen dugun hizkuntza eta irudiak genero-ikuspegitik aztertzea eta eraldatzea.
3. **Emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen soziala eta historikoa:** Andozentrismoak gure kultura menperatu du, eta ondorioz, emakumeen jardunaren ezaguera eta ekarpenak ikusezinak bilakatu dira. Eskolan erabiltzen diren liburu eta testuetan besterik ez dugu ikusi behar.
4. **Gatazken eraldaketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez:** Errespetua eta berdintasuneko harremanak oinarri dituen elkarbizitza sustatu behar dugu. Elkarbizitzan genero-ikuspegia aplikatzea oinarritzkoa da indarkeria sexistari aurre hartzeko.
5. **Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa:** hezkidetza etxeko espazioan, eremu publiko eta okupazionalan sustatu.
6. **Espazioak ikastetxean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak:** Eskoletako espazio batzuk, esate baterako jolastokiak, mutilek opupatu izan dituzte jolas-lehiakorretan aritzeko. Era berean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak mutil eta neskek modu berdinezalean parteka-tzeko proposatu behar dira.

7. **Berdintasunezko hezkuntza afektiboa eta sexuala:** Hezkuntza sexualak, osasun eta garapen pertsonal gisa, helburu du pertsonalki haztea eta sexuarekiko jarrera baikor eta arduratsua izatea.
8. **Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku hartzea:** ikasleak sentibilizatzea, egoera indarkeri eta egoera matxistak hautematea, eta zuzeneko esku-hartzea burutzea.

#### 2.4. AMARA BERRIKO PROIEKTUA (Argitaratu gabeko dokumentua)

Hau guztia kontuan hartuta, Amara Berriko Morlans ikastetxeko guraso zein irakasleak ikastetxeko patioa eraldatzeko beharra ikusi zuten hezkidetzaz bultzatzeko helburuarekin. Hortaz, eraldaketa hau martxan jartzearen arrazoia, guraso, irakasle eta ikasleen kezkatik izan zen, patioa ez zettorrela bat Amara Berri eskolak sustazen duen hezkuntza-metodoarekin esaten baitzuten. Izan ere, Amara Berri metodologiaren ezaugarri batzuk ikerketa, esperimendazioa eta berrikuntza dira.

Aurreko eskolako patioan zementu lauko azalera handia zegoen erdigune bezala, bolumenik eta desnibelik gabea eta ia elementu organiko edo begetalik gabea (Ikus 8.1. eranskina). Egundagoen patioaren helburu bat kirol ezberdinak bultzatzea da. Ondo dakigunez, futbola da kirolerako espazioaren jabe egiten dena, eta kirolera bideratuta ez dauden beste espazio batzuk ere hartzen ditu (adibidez, aterpea edo gimnasioa). Egoera horren ondorioz, ikasle asko, baina batez ere neskek, jolaserako espazio komunetatik kanpo geratzen dira.

Proiektuak eskolako patioa modu dibertigarri eta ekologiko batean birmoldatzea proposatzen zuen, ikasleen eta, batez ere, Morlanseko Amara Berri eskolako ikasleen artean adostasunak eta proposamenak bilatuz. Gurasoen helburua, haien seme alabek patio bizi batez zentzumen guztiekin gozatzea eta ikastea da.

Proiektu honek bi helburu nagusi bete nahi zituen:

1. Ikasgela kanpoko espaziora eramatea: natura eskolara hurbilduz, hau behatu eta zuzenean esperimendatu ahal izateko.
2. Jolasak eta jolastokian ematen diren harremanak eraldatzea modu zorrotz batean: Horretarako, talde-jolaserako, ikasleen arteko negoziatzearako, irudimenerako eta jolas sinbolikorako gonbita egiten duten elementuen presentzia sustatu dute. Ehundura

ezberdinak eta motrizitate-elementuak sartu dira patioan haiekin jolastu edo esperimentatzeko.

Amara Berriko ikasleak izan dira onuradun nagusiak maila fisikoan, emozionalean eta ikaskuntzetan. Baina aldaketa horren irabazle handiak bilatu behar badira, neskak izan dira. Patio inklusibo batean parte hartzen dute, boteretsuak sentituko dira, isolatuak eta kanpoaldera baztertuak sentitu beharrean. Patio berri honetan, balio unibertsal positiboak biziko dira, hala nola jolas kooperatiboak, elkartsauna, integrazioa, genero-berdintasuna, naturarekiko errespetua, hondakinen kudeaketa eta abar.

Patio berria bi gune bereizietan banatuta dago; bat kirola egiteko eta bestea berdeguneetarako, jolas librerako, ikerketarako, naturara hurbiltzeko, etab.

Lehenengo gunean, zementuzko lurra mantendu dute. Espazio honetan, saskibaloieko bi zelai eta futboleko zelai handi bat daude. Bigarren eremuan berriz, ahal zen neurrian, lerro zuzenak, gainazal gogorak eta lauak saihestu nahi izan dute. Horretarako, lur eta landarediko eremuak, desnibelak, eremu mailakatuak, bideak eta bihurguneak sartu dituzte (Ikus 8.2.eranskina). Berdegune hauetan sartzen dira joko elementuak. Pilotalekua bigarren eremu honetan sartzen da, pilotarekin jokatzeko ez ezik, beste joko batzuetarako ere erabil baitaiteke.

Aurretik aipatutako bi helburu horiek lortzeko, ondorengo jarduera hauek proposatu ziren:

- 1. Elementu gogorak eta lerro zuzenak kentzea, eta material organikoak eta elementu kurbatuak sartzea.** Banbuz sortutako hesi bat jarriko da patioaren perimetro osoan bi eremuak bereizteko (Ikus 8.3. eranskina). Hesi honek bi helburu ditu. Batetik, naturarekiko harremana eta jolasa bultzatzea, eta, bestetik, errepideen isolamendu akustikoa eta bisuala.

Gainera, patio osoan zehar zuhaitz espezie autoktonoak sartuko dira. Baratzen eremua handitu eta protagonismo handiagoa hartuko du, konpost-ontzi txiki baten ondoan. Horretaz gain, joko eremuek zurezko txipen, enborren eta harearen bide kurbatuak izango dituzte.

2. **Joko-elementuak sartzeara:** egurrezko etxeak, igotzeko sokak, tirolina bat, koltxoneta elastiko bat, enborrak saltoka aritzeko eta barra batzuk. Horretaz gain, frontoi eta rokodromo txiki bat jarriko dira (Ikus 8.4. eranskina).
3. **Hezkuntza jolas-elementuak sartzeara:** zurezko anfiteatro txiki bat eraikiko da, eta bi funtzio izango ditu: alde batetik, antzezlanak eta proiektuen aurkezpenak egiteko agertoki modu. Bestalde, jolasteko ere balioko du, eseri, jauzi egin eta gora egiteko (Ikus 8.5. eranskina).
4. **Elementu bisual sortzaileak:** ikasleek mural bat egingo dute.

Proiektua martxan jartzeko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren, Donostiako Udalaren eta Emakunderen laguntza izan dute. Horretaz gain, jolastokian erabilitako landare-espezieak hautatzeko, Ekoguneraren aholkularitza eta parte-hartzea izan dute.

### 3. HELBURUAK

---

Hortaz, nire helburua Amara Berriko ikastetxeko patio berrian ematen den errealitatea behatzea izan da, jolastokiaren espazioen banaketa eta bertan ematen diren harremanak aztertuz.

Helburu nagusi hau kontuan hartuta, hauek izango dira kontuan hartuko diren helburu zehatzak:

- Espazio eta denboraren banaketa behatzea.
- Espazio eta denboraren erabilera aztertzea (nola, nortzuk, zerekin, nola erabiltzen dituzten espazioak).
- Espazioan dauden jarduerak ezagutzea (zeintzuk).
- Espazioan ematen diren harremanak ikertzea (noren artean).

## 4. METODOLOGIA

---

### 4.1. LAGINA

Ikerketa egin ahal izateko, Donostian dagoen Morlans-eko Amara Berriko eskolako patioa aztertu dut. Izan ere, eskola publiko honek, aurretik aipatu bezala, 2021ean proiektu bat jarri zuten martxan jolastokia eraldatzeko helburuarekin, eta aurten ikasleak jada ari dira jolastoki berriaz gozatzeko.

Galdetegia, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako bost talde ezberdinei egin diet. Aipatzekoa da, ikasleak hiru txanda ezberdinetan jaisten direla jolas ordura, eta hirugarren ziklokoen txanda 11:00etatik 11:30etara dela.

Bestalde, garrantzitsua iruditzen zait aipatzea 116 ikaslek hartu dutela parte ikerketan, hauetatik 53 neska eta 63 mutil izanik.

### 4.2. INSTRUMENTUAK

Ikerketa egin ahal izateko, galdetegi bat sortu dut Marina Subirats eta Amparo Tomé-ren “Balones fuera” (2017) liburuaren laguntzaz. Galdetegiak hamaika galdera ditu eta hauek hiru multzo ezberdinetan sailkatu ditut. Lehenengo galderak ikasleek jolastoki berriari buruz pentsatzen dutenari buruzko informazioa jasotzeko dira. Horretaz gain, neska-mutilek zein espazio edo eremu okupatzen eta saihesten dituzten jakiteko ere balio izan didate. Bigarren multzoko galderen bitartez, ikasleek jolastokiko denbora eta espazioa nola erabiltzen dituzten aztertu ahal izan dut, bertan ematen diren jolas ezberdinak ezagutzeko. Azkenik, hirugarren multzoko galderak jolas orduan ematen diren harremanei edo jarrerari egiten die erreferentzia (Ikus 8.6.eranskina).

### 4.3. PROZEDURA

Galdetegia ikasleei pasa aurretik, gorputz hezkuntzako irakaslearekin hitz egin nuen ikasleek nire ikerketan parte hartzeko baimena eskatzeko, eta aurreko jolastokiak zituen eremu ezberdinetan hitz egiteko. Modu honetan, aurreko patioaren eta patio berriaren bi plano egin nituen, bakoitzak dituen txoko ezberdinak zehaztuz. Horretaz gain, ikastetxeko patioaren proiektua jasotzen duen dokumentua aztertu nuen, patioaren proiektua zer beharretatik sortu zen jakiteko.

Horren ostean, ikasleei galdetegia pasa nien haien informazioa edo iritzi ezberdinak jasotzeko. Ikasleei galdetegia pasatzeko, gorputz-hezkuntzako lehenengo 20 minutuak erabili nituen. Galderak erantzuten hasi aurretik, ikasleei nire ikerketa labur-labur azaldu nien. Gainera, aipatu zitzairen ikerketan parte-hartzea borondatezkoa zela eta erantzunak anonimoak izango zirela. Hortaz, ikasleren batek parte hartu nahi ez bazuen, ez zegoen hori egitera behartuta.

Behin ikasleen galderak jasota, jasotako datuen azterketa burutu dut, datuen taula eta grafikoen bitartez.

## 5. EMAITZAK

---

Emaitzetan murgildu aurretik, garrantzitsua iruditzen zait Amara Berriko patioaren egitura azaltzea, bertan dauden txoko ezberdinak zehaztuz. Honekin lotuta, galdera batzuk ere aurreko jolastokiari egiten diotenez erreferentzia, honen egitura berriz ere aipatzea ezinbestekoa iruditzen zait.

Aurreko jolastokiari dagokionez, patioak bi futboleko eta bi saskibaloiko zelai zituen. Futboleko zelai batek patioaren erdiaren erdi osoa hartzen zuen, eta saskibaloiko zelai eta futboleko beste zelai batek beste erdia. Jolastokiaren beste erdian, saskibaloiko beste zelai bat eta lurreko jolasak zeuden. Horretaz gain, aterpean Ping-pong eko mahai bat zegoen.




Aurten berriz, proiektua dela eta, jolastokia eraldatu dute. Jolastoki berriak bi eremu nagusi ditu: baloiaren erabilerari lotutako eremua eta parkea. Eremu batean futboleko eta saskibaloiko zelaiak daude, futboleko zelaia karpa handi batek estaltzen duelarik. Beste aldean berriz, egurrez eta harriz sortutako parke bat dago. Parke honetan, Tirolina, koltxoneta, baratza, etxetxoak, anfiteatroa eta rokodromoa bezelako jolas alternatiboak aurkitu ditzakegu. Horretaz gain, Ping-pong mahaiaren ondoan frontoi txiki bat ipini dute (Ikus 8.8.eranskina).



Behin Amara Berriko jolastoki zaharraren eta patio berriaren espazioak azalduta eta aztertuta, lanaren zati honetan, ikasleei pasatako galdetegiko erantzunak aztertuko ditut banan-banan. Horretarako, jasotako erantzun hauek grafiko batzuen bitartez adieraziko ditut.

### 1. GRAFIKOA - JOLAS ORDUA GUSTATZEN ZAIZU?



Ikasleei egindago galdetegiko lehenengo galderari dagokionez, erantzun hauek jaso nituen. Grafikoak adierazten duen moduan, ikasleen %97-ri jolas-ordua gustatzen zaie. Berriz, ikasleen %3ri, ez zaie jolas ordua gustatzen. Ikasleen %97ek esan dute, lagunekin egotea,

hamaiketakoa jatea eta jolastea asko gustatzen zaiela. Gainera, lau ikasleek azpimarratu dute, klase barruko estresa askatzeko ezinbestekoa dela jolas ordua, eta beste taldeekin nahastu daitezkeela. Horretaz gain, bost ikaslek aipatu dute jolas ordua gustuko dutela futboleko jolastu eta nahi dutena egin dezaketelako. Bestalde, ezezkoa erantzun duten ikasleen arrazoi nagusia aspertzen direlako da.



## 2. GRAFIKOA - AURREKO JOLASTOKIA GUSTATZEN ZITZAIZUN?



Aurreko patioa gustatzen zaien galdetzean, nesken %45ek eta mutilen %81ek baietz erantzun dute. Berriz, nesken %55ek eta mutilen %19k ezetz esan dute.

Aurreko jolastokia gustatzen zitzaizen ikasle gehienen arrazoia, kirola egiteko leku eta eremu gehiago zeudela izan da. Izan ere, 20 mutilek eta 3 neskek aipatzen dute aurreko jolastokiak futboleko eta saskibaloiko bi zelai zituela. Bestalde, 3 ikaslek aipatzen dute aurreko jolastokia gustatzen zitzaIELA ez zuelako oraingo jolastokia bezala zikintzen.

Ezetz erantzun duten ikasleen arrazoia, bakarrik futboleko eta saskibaloiko zelaiak zeudela eta hortaz, ez zegoela jolasteko hainbeste gune izan da (N= 16, M=6). Ikasle neska batek gehitzen du, askotan bankuetan eserita pasatzen zuela jolas-ordu guztia. Horretaz gain, bi ikaslek aipatzen dute natura faltagatik, erortzean mina hartzen zutela, eta hortaz, kontuz ibili behar zirela jolasterako orduan.

## 3. GRAFIKOA - JOLASTOKI BERRIA GUSTATZEN ZAIZU?




Jolastoki berriaren inguruan galdetzean, ondorengo erantzun hauek atera ziren galdetegitik. Nesken %94ak eta mutilen %82ak baiezkoa erantzun dute. Aldiz, nesken %6ak eta mutilen %18ak ezezkoa esan dute.

Baiezko erantzunei dagokienez, orokorrean gehienek jolastoki berriak jolasteko aukera anitzak dituela aipatu dute. Ikasle neska batek aipatzen du, futbolaz eta saskibaloiaz gain, beste gauza gehiago daudela jolasteko, eta honekin lotuta, mutil batek idazten du, oraingo jolastokian guztientzako lekua dagoela.

Ezezko erantzunei erreparatzen badiegu, ikusi dezakegu mutil gehienek aipatzen dutela orain futbol zelai bakarra dagoela, eta egin duten parkea oso infantila eta aspergarria dela. Horretaz gain, 6 ikaslek aipatzen dute parkeko harriek zikindu egiten dutela arropa.

#### 4. GRAFIKOA - AURREKO JOLASTOKIAREN ETA BERRIAREN ARTEAN ZEIN GUSTATZEN ZAIZU GEHIAGO?




Nesken %94ak jolastoki berria eta %6ak aurreko jolastokia nahiago dutela erantzun dute. Mutilen kasuan berriz, %67ak berria eta %33ak aurreko jolastokia erantzun dute.

Aurreko bi galderen antzera, jolastoki berria nahiago dutela erantzun dutenen arrazoia, jolasteko leku eta aukera gehiago ditzutela izan da. Hiru ikaslek aipatzen dute, jolastoki berriari esker, kirola egin nahi ez duten ikasleek ere aukera dutela beste zerbaitetan jolasteko, eta beste eremu batzuetan egoteko. Erantzun hauetan ere ikusi dezakegu, ikasle gehienei tirolina asko gustatzen zaiela. Izan ere, jolastoki berria nahiago dutela aukeratzeko 8 ikasleen arrazoia tirolina duelako izan da.

Aurreko urteko jolastokia nahiago duten ikasleen arrazoia berriz, futboleant eta saskibaloian jolasteko eremu gehiago zeudelarekin batera, zikintzen ez zuelako da. Hau, 10 mutilek eta neska batek erantzun dute.

## 5. GRAFIKOA - ZEIN EREMUETAN IBILTZEN ZERA NORMALEAN?



Aipatzekoa da, datu hauek jasotzerako orduan sailkapen batzuk egin behar izan ditudala, parkeko eremuak zona ezberdin asko dituelako.

Erantzunei dagokienez, 21 neskek erantzun dute normalean parkean


ibiltzen direla. Erantzun hauetatik 9 ikaslek bereiziki parkean dauden barretan egoten direla aipatu dute, batek koltxonetan, hiruk gurpiletan, beste hiruk egurrezko etxetxoan eta batek enborretan. Mutilen kasuan, bost ikasle bakarrik ibiltzen dira parkean; hiru koltxonetan, bat gurpiletan eta beste bat enborretan.

Futbol zelaian, 9 neska eta 36 mutil ibiltzen dira. Bestalde, saskibaloizelaian, 15 neska eta 5 mutil. Ping pong eremuan, 4 neska eta 9 mutil ibiltzen dira normalean, eta frontoian 6 mutil. Hortaz, guztira kirol-eremuetan, 28 neska eta 56 mutil egoten dira normalean.

Bestetik, tirolinan, ikasleen leku gogokoenetako batean, 20 neska eta 13 mutil ibiltzen dira, eta ondoan dagoen rokodromoan berriz, neska bat. Bukatzeko, 3 neska eta mutil batek aipatu dute normalean bankuetan ibiltzen direla, eta are gehiago, neska batek esan du futbol zelai ingurutik lekualdatzen dela.

## 6. GRAFIKOA - ZEIN EREMUETAN EZ ZAIZU GUSTATZEN EGOTEA?

Ikasleak jolastokiko zein eremuetan ez zaien gustatzen ibiltzea galdetzean, ondorengo emaitza hauek atera dira.





Hasteko, parkeko eremuan 19 mutilek eta 9 neskek erantzun dute. Gehienek, zikintzen direlako edo aspergarria iruditzen zaielako aitzakia erabili dute. Tirolina berriz, 10 mutilek eta 8 neskek aukeratu dute, jende asko pilatzen baita txoko honetan. Bestalde, anfiteatroa, parkearen erdigunean kokaturik dagoena,

2 neskek eta mutil batek erantzun dute, ez dakitelako nola edo zertarako erabili. Bigarrenik, rokodromoa 3 neskek eta 3 mutilek aukeratu dute, eta frontoia bi mutilek, aspergarria iruditzen baitzaie.

Azkenik, kirol-eremuei dagokienez, futbol zelaia 22 neskek eta 12 mutilek erantzun dute. Askok aipatu dute, ezinezkoa dela futbolera jolastea jende asko egoten delako eta ez dutelako baloia ukitzen. Futbol zelaia gustuko ez dutela aukeratu duten nesken erdiak dio, ez zaiela futbola gustatzen, eta beste erdiak berriz, aipatzen du, futbolearen aritzen diren ikasleak astoratuta egoten direla. Horretaz gain, bi neskek aipatzen dute baloiari beldurra diotela, eta nahiago dutela futbola ikustea jolastea baino. Azkenik, saskibaloia eremua gustuko ez duten 3 neska eta 7 mutil daude, eta ping pong eremua gustatzen ez zaien 4 ikasle, 3 neska eta mutil bat.

## 7. GRAFIKOA - ZEINEKIN GUSTATZEN ZAIZU JOLASTEA?




Galdetegiko galdera honekin, elkarrekin jolasten duten mutil-taldeen kopurua, elkarrekin jolasten duten nesken-talde kopurua eta talde mistoetan dauden ikasle kopurua zehaztu ahal izan dut.

Hortaz, grafikoan agertzen den moduan, ikasle nesken %75a neskekin ibiltzen da, %2a mutilekin eta %23a neska zein mutilekin. Mutilen kasuan berriz, %82a mutilekin ibiltzen da, eta %18a neska zein mutilekin.

### 8. GRAFIKOA - ZEINTZUK DIRA ZURE JOKO-JOLAS GUSTOKOENAK?

Galdera honetan atera diren erantzunak ondorengo hauek izan dira. Hasteko, 38 mutilek eta




20 neskek aipatu dute haien joko-jolas gustakoa futbola, saskibaloia, ping-pong edo esku pilota direla. Era berean, 15 mutilek eta 9 neskek esan dute haiei harrapeketetan eta bonbardeo jolasean jolastea gustatzen zaiela. Bestalde, 3 neskek eta 5 mutilek nahiago dute tirolinan egon.

Parkeko eremuari dagokionez, 9 nesken eta 2 mutilen joko-jolas gogokoenak parkeko eremuetan dauden zona ezberdinetan aurkitu dituzte, hala nola: txiribueltak emateko barretan, koltxonetan, gurpiletan eta enborretan.

Grafikoan ikusi daitekeen moduan, 2 neskek esan dute haiei pultserak egitea gustatzen zaiela, eta 5 neskek erantzun dute hitz egitea dela gehien gustatzen zaien joko-jolasa. Gainera, bi neskek erantzun dute “familietara” jolastea atsegin dutela.

## 9. GRAFIKOA - ZER EGITEA EDO JOLASTEA GUSTATZEN ZAIZU GEHIEN?





Grafikoan ondo agertzen denez, 73 ikasleei kirol eremuetan egotea gustatzen zaie gehien, hauetatik 24 neska eta 49 mutil izanik. Parkeko eremu edo txoko ezberdinetan ibiltzea aukeratu duten ikasleetatik, 9 neska eta 5 mutil izan dira. Aipatzeko da, parkean egotea gustatzen zaiela esan duten mutilek, gorpil eremuan egoten

direla bata bestea gurpiletatik botatzen. Aldiz, parkea aukeratu duten nesken kasuan, koltxonetan edo birak emateko barretan ibiltzen dira. Bestalde, tirolina gehien gustoko duten ikasleen artean, 7 neska eta 4 mutil ditugu.

Jolasei dagokienez, bost ikaslek aipatu dute harrapaketan jolastea dela gehien gustatzen zaiena, hauetatik lau mutil eta neska bakarra izanik. Bestetik, neska batek aipatzen du gehien gustatzen zaiena "familietara" jolastea dela, eta mutil eta neska batek esan dute haiei gehien gustatzen zaiena "gerretara" jolastea dela.

Azkenik, 14 ikaslek jarrera pasiboago bat hartzen dute jolas-orduan. Hauetatik, bi ikaslek erantzun dute gehien gustatzen zaiena irakurtzea dela, eta beste 9 ikaslek lagunekin hitz egitea, azkenekotik bat mutila izanik. Honekin lotuta, hiru ikaslek idatzi dute ez dutela gehiegi jolasten.

## 10. GRAFIKOA - JOLASTOKIAN FUTBOLEAN JOLASTEN DUZU?



Nesken %77a ezezkoa erantzun du, %15a baietz eta %8a batzuetan. Ezezkoa erantzun dutenen artean, gehienek futbola ez dutelako gustoko erantzun arren, beste erantzun batzuk atera dira. Ikasle batzuk diote, baloiari beldurra dietela, eta gainera, nahiago dutela ikustea jolastea baino. Beste ikasle batzuk aipatzen dute jolastu arren ez dietela baloia pasatzen.

Mutilen kasuan berriz, %53ak baiezkkoa erantzun du, %36ak ezezkoa eta %11ak batzuetan. Ezezkoa esan duten gehienek aipatu dute, futboleant ez jolasteko arrazoia jende asko egoten dela da, eta beste batzuk esan dute futbola ez zaiela gustatzen.

## 11. GALDERA - JOLASTOKIA HOBETZEKO PROPOSAMENIK?

Ikasleen proposamenak eta ideiak kontuan hartzea ezinbestekoa den heinean, garrantzitsua iruditzen zitzaidan behin jolastokiko eraldaketa eginda, ikasleen iritzi ezberdinak eta haien hobekuntza proposamenak jakitea. Nahiz eta ikasle gehienek ez zutela ezer aldatu, kendu edo gehituko erantzun, beste batzuk ondorengo proposamen hauek dituzte:

- Parkeko harriak kendu.
- Koltxoneta handiagoa.
- Txiribueltak emateko barra gehiago.
- Igerileku bat.
- Tirolina bat.
- Futbol zelaian dagoen karpa kendu edo altuagoa egin.
- Baratza erabiltzea.
- Aterpe gehiago.
- Txirrindentzako zirkuitu bat.

## 6. ONDORIOAK

---

Irakasle, ikasle eta gurasoak konturatu ziren arazo bat zegoela jolastokiaren erabilerari dagokionez. Horri buruz hausnartu ondoren, jolastokiaren eraldaketa jarri zuten martxan, ikasle guztientzako berdintasunezko espazioa eskaintzeko. Eraldaketa honi esker, ikasleek hainbat espazio eta jolas ezberdinetaz gozatu dezakete. Aldiz, oraindik ere desberdintasunak ikusten dira jolas orduan ikasleek okupatzen dituzten espazioak eta hartzen dituzten rolak

direla eta. Honen eragile nagusia egungo gizartea dela argi dago, izan ere, bertan transmititzen diren genero-rolak oso atxikituta daude gure kulturaren.

Eskola gizartearen isla den heinean, bertan transmititzen diren genero rol eta estereotipoak hain barneratuta daude gure kulturaren, ikasleak hauen arabera gidatzen eta mugitzen direla. Zehatzago esanda, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak barneratzen ditugun gizarte-eredu batera egokituta bizi gara (Soto Carmona, 2014).

Marina Subirats eta Amparo Tomek, “Balones fuera” liburuan (2007) aipatzen dute, jaio berri den haur bat ez dela basamortu batera iristen, kultura batek markatutako gizarte batera baizik, sineste, agindu eta ohitura errotuekin. Kultura hori gizaki bakoitzaren jaiotzearen aurretik dago, eta, beraz, neska bada modu batean jokatu behar du, eta mutila bada, beste modu oso ezberdin batean.

Hortaz, eta aurretik aipatu bezala, gizartean sexuaren inguruan, “generoa” deituriko konstruktua soziala eraikitzen da. Genero bakoitzari ezugarri eta betebeharrak batzuk egokitzen zaizkio, hauek betetzen ez dituzten pertsonak seinalatuz. Generoen inguruan egiten den eraikuntza honetan, arau, jarrera, sinesmen, itxaropen eta praktika desberdinak bereizten dira emakume eta gizonentzat.

Hala, mutilengandik ausartak, arinak eta indartsuak izatea espero da. Bestalde, emakumeak sensibilitate handia, delikatuak, zaintzarako egokiak, estetikoki finak eta ederrak izan behar dira (Freixas, 2001). Hala ere, ez da kontuan hartzen sexu berdinen barruan ezberdintasun handiak daudela eta denak oso ezberdinak garela.

Hau guztia dela eta, ez gara harritzen jolas-orduan neskak elkarrekin hizketan, “familiara” jolasten, barretan bueltak ematen edo gehienak parkean ikusten ditugunean, mutilak, berriz, saskibaloian eta futbolean, elkarri bultzatzen eta espaziotik korrika dauden bitartean. Izan ere, ikasleek garatzen dituzten jolasek genero-marka argia dute, eta zoritxarrez, ikasle askok oso barneratuta dute orain arte jolas orduan hartu dituzten jarrera eta rol hauek.

Azken honen adibide bat da, ikerketan neska batek berari futbola ikustea jolastea baino gehio gustatzen zaiola erantzutea, edo futbolean jolasten ez duela aipatzea baloia pasatzen ez dietelako. Azken finean, orain arte, futbola eta futbolean parte hartu duten ikasleak izan dira



patioako protagonista nagusiak. Beraz, gainerako ikasle guztiak bigarren mailan geratu dira, patioaren periferiak okupatuz eta beste ikasleen jolasen ikusleak bihurtuz (Hik hasi, 2018).

Jolastokiaren eraldaketaren arrazoi bat, ikaslee guztientzako jolas ordu bat sortzea zen, jolas eta aukera ezberdinak eskaintzen dituen espazio zabal bat sortuz. Azken finean, patio batek jolas aberats, irudimentsu eta askotarikoa esakini eta, beraz, ikasleen beharrei behar bezala erantzun behar die. Hala ere, ikastetxeak eraldaketa hau gauzatu ondoren, ikusi dezakegu ikasleek jarraitzen dituztela espazio berak okupatzen.

Lehenik eta behin, ikerketari esker ikusi ahal izan dut mutilak, orokorrean, kirolguneetan ibiltzen direla eta neskek jolastokian duten banaketa zabalagoa dela; batzuk kirolguneetan, beste batzuk parkean eta beste batzuk eskinetan eserita. Gainera, jolas orduan oraindik futbolak berebiziko garrantzia edukitzen jarraitzen du, ikusi besterik ez dugu egin behar zenbat ikaslek, gehinak mutilak, nahiago duten futbolean jolastu edo nahiago duten jolastoki zaharra futboleko bi zelai zituelako besterik ez.

Horretaz gain, parkean ere banaketa nabari bat agertzen da neskek eta mutilek okupatzen dituzten espazioei dagokienez. Izan ere, parkean ibiltzen diren mutilak orokorrean tirolinan edo gurpiletan ibiltzen dira bata bestea bultzatzen. Bestalde, neskak, tirolinan, etxetxoan, koltxonetan eta barretan ibiltzen dira. Navarrok eta Mongek (2009) aipatzen duten moduan, neska-mutilek jolasten dituzten jolasek, hainbat rol “femenino” eta “maskulino” jasotzen dituzte, eta egile hauek diotena galdetegiko erantzunetan jaso ahal izan dut; neska batzuek erantzun baitute jolas orduan “familiara” jolastea gustatzen zaiela, eta mutil batzuk berriz, “gerretara” jolasten dutela.

Gauzak aldatzen diren arren, neska-mutil askok ikasten jarraitzen dute, oso gaztetatik, “emakumearen mundua etxea dela eta gizonaren etxea mundua dela”. Sozialki eraikitako gidoi horren arabera, mutilek indartsuena eta ausartena nor den frogatzera jolastuko dute, arauari aurre eginez. Hots, mutilek “mutilak izaten” ikasten dute, eta horrek guztiak sendotu egiten du gure gizarteak hautematen duen maskulinitasuna. Neskei, berriz, ez zaie “emakume izatera” jolasten bultzatzen, “ama izatera” baizik, eta behar dituzten instrumentuak ematen zaizkie txikitatik; hala nola, panpinak, lapikoak eta jostailuzko sukaldeak (Asturias, L., 2004). Bestalde, Amparo Tomek gehitzen du (2007) mutilen sozializazioa maskulinitasunaren eta portaera oldarkorren arteko elkartzea dela; nesken kasuan, berriz,

feminitatea afektibitatearen bidez eraikitzen da.

Bigarrenik, jolasterako orduan mutilak eta neskak bereiztuta taldekatzen direla bistakoa da, nahiz eta kasu batzuetan talde mistoak ere dauden. Lehenengo eskolako etapan, neska eta mutilak elkarrekin jolasten dute, baina 10-11 urtetik aurrera bereizketa hori handitzen joaten da. Batera jokatzen duten kasuetan, neskak mutilen jardueretan integratzen direlako izaten da, eta kasu askotan futboleko jokatzen dutelako haiekin. (Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017). Hernaniko Udaletxeko Berdintasun Sailak (2005) aipatzen du, oso interesgarria dela lehiarik eskatzen ez duten jokoak eta neskak eta mutilak jolastu dezaketeko jokoak sartzea. Hala ere, pertsona dinamizatzaile baten papera ezinbestekoa da, bateratze horrek modu egoki batean funtzionatu dezan.

Argi dago, patioa aldatzea hezkidetzarako urrats handia dela. Hala ere, uste dut oraindik bide luzea dugula aurretik, eta gizartea eta bertan ematen eta transmititzen diren balioak aldatzen ez diren bitartean, eskoletako eta egungo egoerak berdindu jarraituko duela. Bestalde, ez dugu ahaztu behar eskolan bertan generoagatiko diskriminazio asko ematen dela, eta alderdi hauek aldatzen ez baditugu ez dugu osotasunean parekidetasunik lortuko.

Hortaz, jantzi ditzagun betaurreko moreak eta eraldatu dezagun hezkuntza-sistema, beste espazioetan bertan ematen diren balio sexistak erreproduzitu eta transmititu ez daitezten. Eman dezagun beste pausu handiago bat.

## 7. BIBLIOGRAFIA

---

Amara Berri eskola (2021). *propuesta de diseño del patio escolar de amara berri ikastetxea, morlans*. Donostia: (Argitaratu gabeko dokumentua)

Asturias, L. (2004). Construcción de la masculinidad y relaciones de género. *Carlos Lomas (comp.): Los chicos también lloran. Identidades masculinas, igualdad entre los sexos y coeducación*. Barcelona: Paidós Ibérica, 65-78.

Auzmendi, J. Mari; Azpirotz, A; Mendizabal, A. eta Muñoa, A., (2018). Eskola feministarantz. Generoaren motxila hausten. *Hik hasi aldizkaria*, 216, 11-17. or.

Bravo, P. C., eta Moreno, P. V. (2007). La interiorización de los estereotipos de género en jóvenes y adolescentes. *Revista de investigación educativa*, 25(1), 35-38

Bullen, M.; Hernández García, J. M.; Elia Itzultzaile automatikoa. *El Concepto de Género*. Enciclopedia Auñamendi, 2022. (Kontsulta eguna: 2022/03/10) <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/el-concepto-de-genero/ar-152507/>

Cabeza, A. (2010). *Importancia de la coeducación en los centros educativos*. Pedagogía Magna, 8, 39-45.

Cantó, R. eta Ruiz, L. M. (2005). Comportamiento Motor Espontáneo en el Patio de Recreo Escolar: Análisis de las diferencias por género en la ocupación del espacio durante el recreo escolar. *RICYDE. Revista Internacional de Ciencias del Deporte*, 1(1), 28-45. or.

Chaves Álvarez, A. L. (2013). Una mirada a los recreos escolares: El sentir y pensar de los niños y niñas. *Revista electrónica educare*, 17(1), 67-87. [https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?pid=S1409-42582013000100005&script=sci\\_arttext](https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?pid=S1409-42582013000100005&script=sci_arttext)

Collin, F. (2008). *Se nace mujer y se deviene: Las ambigüedades de Simone de Beauvoir*. In *Jornada de Homenaje a Simone de Beauvoir 12 de septiembre de 2008 La Plata, Argentina. A 100 años de su nacimiento*. Universidad Nacional de La Plata. Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación. Departamento de Lenguas Modernas y Centro Interdisciplinario de Investigaciones en Género.

Frantzisko Deuna Ikastetxe publikoa (2022ko martxoaren 13a). *Mi barrio, mi patio*. Nire auzoa, nire jolastokia. <https://sanfranciscoip.educacion.navarra.es/web1/blog/2021/03/23/mi-barrio-mi-patio-nire-auzoa-nire-jolastokia/>

Hernaniko udala (2005). *Berdintasunezko jolasa. Hezkidetza eta espazioaren inguruko baliabide gida*. Gipuzkoa: Hernaniko udaletxeko berdintasun saila. (Kontsulta eguna:

2022/02/14)

<https://www.hernani.eus/documents/497182/1142197/Berdintasunezko+jolasa.pdf/9f05bd20-fa3e-4174-9185-a490c562cb59>

Hik Hasi (2018). Eskolako patioa, ikasle guztiei lekua egin nahian. *Hik hasi*. [http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20180123/ESKOLAKO\\_PATIOA\\_Ikasle\\_guztiei\\_leku\\_egin\\_nahian](http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20180123/ESKOLAKO_PATIOA_Ikasle_guztiei_leku_egin_nahian)

Jarret, O. (2002). El recreo en la escuela primaria: ¿Qué indica la investigación? (Recess in Elementary School: What Does the Research Say?). Champaign, IL: Eric Clearinghouse on Elementary and Early Childhood Education. ]. In Álvarez, A. L. C. (2013). Una mirada a los recreos escolares: El sentir y pensar de los niños y niñas. *Revista electrónica educare*, 17(1), 67-87. (Kontsulta eguna: 2022/02/10) [https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?pid=S1409-42582013000100005&script=sci\\_arttext](https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?pid=S1409-42582013000100005&script=sci_arttext)

Jarret, O. & Waite-Stupiansky, S. (2009). *Recess—It's Indispensable! [El recreo es imprescindible]*. In Álvarez, A. L. C. (2013). Una mirada a los recreos escolares: El sentir y pensar de los niños y niñas. *Revista electrónica educare*, 17(1), 67-87. (Kontsulta eguna: 2022/02/10)

Llorente Pastor, B. (2004). *Jolasen oinarri teorikoak eta umeen jolasak: animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak*. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco, Servicio Central de Publicaciones, 2004.

Lozano Tordillo, M. (2018). *Los roles de género en la etapa de educación infantil: educar para la igualdad*.

Marañón, I. (2018). *Educación en el feminismo*. Plataforma.

Pérez Hurtado, L. eta Collazos Henao, T. (2007). *Los patios de recreo como espacios para el aprendizaje en las instituciones educativas*. Sedes Pablo Sexto en el municipio de Dosquebradas.

Pica, R. (d.g.). *7 Reasons why Kids Need Recess [7 razones del porqué los niños necesitan el recreo]* (2019/12/02an). In Chaves Álvarez, A. L. (2013). Una mirada a los recreos escolares: El sentir y pensar de los niños y niñas. *Revista Electrónica Educare*, 17(1), 67-87. (Kontsulta eguna: 2022/02/07) [https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?pid=S1409-42582013000100005&script=sci\\_arttext](https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?pid=S1409-42582013000100005&script=sci_arttext)

Pino, P. G., eta Giménez, J. P. (2015). El recreo, ¿Sólo para jugar?. *EmásF: revista digital de educación física*, (36), 18-27.

Rodríguez Navarro, H., eta García Monge, A. (2009). Asimilación de códigos de género en las actividades del recreo escolar. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*. [https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/36701/AsimilacionDeCodigo\\_sDeGeneroEnLasActividadesDelRec.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/36701/AsimilacionDeCodigo_sDeGeneroEnLasActividadesDelRec.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

Soto Carmona, A. (2014). *Propuesta para fomentar la igualdad de género en Educación Infantil "Ser niña y ser niño"*.

Subirats, M. eta Tomé, A. (2007). *Balones fuera. Reconstruir los espacios desde la coeducación*. Octaedro.

Tomé, A. eta Ruiz, R. A., (2002). *El espacio del juego: escenario de relaciones de poder. En Género y educación: la escuela coeducativa (79-88)*. Graó.

Uria, A. A. (2010). Formula magikorik ez. *Ikastorratza, e-Revista de didáctica*, (7), 1-11.


Varela, N. (2014). *Feminismo para principiantes*. B de books.

Vizcarra, M. T.; Garay, B. eta Ugalde, A. I. (2017). Los recreos, laboratorios para la construcción social de la masculinidad hegemónica. *Teoría De La Educación; Revista Interuniversitaria*, 29(2), 185-209. or.


## 8. ERANSKINAK

---

### 8.1. Amara Berriko patio zaharraren planooa



### 8.2. Patio berriaren eremuak




### 8.3. Banbuz osatutako hesia



## 8.4. Joko elementuak



Enborrez osatutako sarea



Koltxoneta



Enborrez osatutako etxeta



Sarea



Biratzeko gurpila



Egurrezko mahaia



Rokodromoa



Tirolina

### 8.5. Zurezko anfiteatroa





## 8.6. Galdetegia

<b>FITXA 1</b> <i>IKASLEENTZAKO GALDETEGIA</i>
---------------------------------------------------

Sexua: .....

Adina: .....

Kurtsoa: .....

Taldea: .....

GALDERAK:

Jolas-ordua gustatzen zaizu? Zergatik?.....

.....

Jolastoki berria gustatzen zaizu? Zergatik?.....

.....

Aurreko jolastokia gustatzen zitzaizun? Zergatik?.....

.....

Aurreko jolastokiaren eta berriaren artean zein gustatzen zaizu gehiago?

Zergatik?.....

.....

Zein eremutan ibiltzen zera normalean (futbol zelaian, saskibalo zelaian, tirolinan)?

.....

Zein da zure eremurik gustokoena? Zergatik?.....

.....

Zein eremutan ez zaizu gustatzen egotea? Zergatik?.....

.....

Zeinekin gustatzen zaizu jolastea? (Idatzi hiru izen).....

.....

Zeintzuk dira zure jolas-joko gogokoenak?.....

.....

Zer egitea edo jolastea gustatzen zaizu gehien jolastokian?.....

.....

Jolastokian futbolean aritzen zera? (ezezkoa bada jarri zergaitik ez duzun jolasten).....

.....

Zertara gustatuko litzaizuke jolastea?.....

.....

Jolastokia hobetzeko proposamenik?.....

.....

## 8.7. Ping pong eta frontoia

